

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektuaren xede nagusia udalak eta haien bitartez herritarrak dira, bereziki animalien ongizatearekin eta abandonuaren aurkako borrokarekin konprometitutako komunitateak. Lehenik eta behin, Durangaldeko eta inguruko udaletxei aurkeztuko diegu BABESBIZI proiektua, udal baliabideak eta sare sozialak erabiliz, bertako herritarrei zuzendutako zerbitzua eskaintzeko asmoz. Izan ere, gure Instagrameko kontua @babesbizi_elkartea deitzen da eta bertan, gure eguneroko ekintzak igoko ditugu. Gure helburua da udalek gure enpresa kontratatzea, eta horrela azken onuradunak herritarrak eta, batez ere, abandonatutako animaliak izatea.

Eskaintza anitza da: abandonatutako animalien babesa, arreta eta jarraipena, adopzio arduratsuaren sustapena, sensibilizazio-kanpainak, hezkuntza-tailerrak, hitzaldi informatiboak eta herritarrentzako



orientazio zerbitzuak. Horren ondorioz, gure bezeroen profila ere askotarikoa da, jardueraren arabera desberdina izan daitekeelarik. Udalez gain, familiak, gazteak, helduak, animalien jabeak edo etorkizunean animalia bat adoptatzeko interesa duten pertsonak, baita hezitzaileak edo gizarte-ongizatean interesa duen edonor izan daiteke gure proiektuaren parte.

Argi dugu gure proiektuan tokiko komunitatearekin elkarlanean aritu nahi dugula, eta horregatik, gure balio eta printzipioekin bat egiten duten pertsonak eta erakundeak izango dira gure xede-bezeroak. BABESBIZI ez da soilik zerbitzu-enpresa bat, baizik eta kontzientzia soziala sortzea helburu duen proiektua.

Hasieratik, gure komunikazio-hizkuntza euskara izango da, eta euskal gizartean animaliekiko errespetua eta ardura sustatzea izango da gure lehentasunetako bat. Horrez gain, honako balio eta printzipio hauek izango dira oinarri nagusiak:

- Animalien ongizatea eta errespetua
- Abandonuaren eta tratu txarren aurkako konpromisoa
- Adopzio arduratsua sustatzea
- Hezkuntza eta sensibilizazio soziala
- Tokiko komunitatearen inplikazioa
- Erakunde publikoekiko lankidetzatza (udalak)

- Gizarte inklusiboa eta arduratsua
- Ingurumenarekiko eta naturarekiko errespetua
- Hurbileko baliabideen aprobetxamendua
- Herritarren parte-hartzea eta elkarlana

Gaur egun, gure inguruan animalien abandonuari modu integralean heltzen dioten proiektu egonkorren gabezia nabaria da, eta horregatik elkarte honen sorrera behar sozial bati erantzuteko jaio da. Gure xedea da balio hauekin bat egiten duten udal, erakunde eta herritar guztiengana iristea, hutsune hori betetzeko asmoz. Guztion artean elkarlanean, animalien ongizatea eta gizartearen kontzientzia hobetzea da gure nahia, inklusibotasuna eta erantzukizun partekatua oinarri hartuta.